

KOSTUEN EGITURA

Gure negozioak hainbat kostuei egin beharko dio aurre:

1.-Kostu finkoak: Gutako bakoitzak lana etxetik egingo du, beraz ez dugu lokalaren eta horniduren kostua enpresaren izenean ordaindu behar. Norberak bere mugikor, portatil eta ibilgailu pertsonala erabiliko ditu. Ondorioz, gure enpresak ez ditu kostu finko handirik.

2.-Kostu aldakorrak: Adinekoen etxeetara joan ahala izateko, gure ibilgailuen beharrezko erregailuak, hala nola, gasolina edo diesela, izango litzateke gure kostu aldakor nabariena. Horretaz aparte, adineko pertsona hori zaintzeko behar diren ekipamentu nahiz materiala bezeroak jarri beharko ditu. Beraz, kostu aldakorrak, kostu finkoak bezala, oso baxuak izango dira.

Guk kalitatezko zaintza zerbitzu bat eskaini nahi diegu adinekoei, beraz, gure helburu nagusia ez da izango kostu ahalik eta baxuenak dituen zerbitzua eskaintzea. Guk prezio-kalitate paregabe bat eskainiko diegu bezeroei. Beraz, gure kostuen egitura minimora jeitsi beharrean, gure kostuak zainduko ditugu, kostu altuegiak izatera ere ez iristeko. Horrela, prezio lehiakor bat eskainiko diegu gure bezeroei.